

## PIER LAFITTE IL ZAIGU (1901-1985)

Lafitte jaun apeza, euskal-idazle eta euskal-alorretako langille porrokatua, azkenengo «Gero arte» joan zaigu. Azkenengo egunak arte, lanari uko egin gabeko gizona, bere larogei ta bostgarren urtean, beste ezerk baifto geiago lanaren lanak eramán digu. Oraindik eskuartean ainbat Ian eta gogoan ainbat asmo berri zerabilzkiala il da. Goyan bego.

Luhossoan, Bidasoaz andik jaioa genuen bera, mende onen asi-asieran. Inoiz entzun izan degunez, aurtzaroan jaioterritik atzerrira aldatu zutelarik, gaskoindu egin omen zan, eta etxean ikasitako euskera aazteraifio eldu. Geroago, orraitio, amaren izkuntzaz inor gutxi bezala jabetu zala ikusiko degu, eta euskaldun maisu gertatu izan da. Lafitteren euskal-gramatika eredutzat eta onenen artekotzat dago gaur.

Gure gaztetan maisu onen *Euskaldunen Loretegia* egoki baifto egokiago etorri zitzaigun Euskalerrri guztiko euskerari antz artzen eta gure antzinako literaturaren iritzi eta ikuspegitxo bat izaten asteko.

Euskalzale sutsu izan da Lafitte jauna, eta, bein ikasturteak amaitu, apez egin eta Ustaritzeko Apaizgaitegian irakasle jarri zuten ezkeru, an eman du bere bizia, bere lanari loturik, geroko apaizak eskolatzen, eta bai aien gogo-biotzetan eta inguru guztian euskaltasuna ereiten ere.

Gazterik asi zan idazten eta ez dio geroztik pakerik emango

lumari. Alor askotan sartu da. Olcrkari edo koblakari ageriko zaigu, antzerkigille, ipui-idazle, izteigille, gramatikalari, leenaren aztertzaile, antzinako euskal-idazleen eta oraingoen berriemaille eta kritikolari.

Ingurukoen sustatzaille eginik, berak irabazi ditu euskal-alorrean lan egiteko luma on batzuk: E. Salaberri, Iratzeder eta abar. Seminarioan apaizgai bikoitzari bere euskeran, Zuberoko, Lapurdiko nai Nafarroako euskeran lanak eragiten zizkien eta gero *Gure Herria* atara eman askotan. Ola oi zituen apaizgaiak euskalzaletu eta tokian tokiko euskeraren pitxiak eta aberastasunak plazaratzen lagundu.

Baina apaizgaien euskalzaletzeko eta sustatzeko lana ez zuen aski Kristua -erri euskalduna, erri xeea, ez du aaztu ez bazterrean utzi. Berak eginak edo besterenak argitaraturik, ainbat liburu aterako ditu euskeraz, etxean edo elizan irakurtzeko eta otoitz egiteko: Jesukristoren bizitza, Arimen illerakoa, maiatzerakoa, Andre Maria Jainkoaren eta gizonen Ama ezagutu eta gorestekoa, eta abar. Zartzaroan, azken aldean, beti gazteez grynaturia eta gazte artean bizi izan dan onek, bere burua gazte zaitu duen onek, gazteentzat liburu txiki, mamitsu ta urre utsezkoa idatzi eta ataratu du: *Idek eta zabal gogo-bihotzak*.

Euskeraren arloan eta gure literatura zaararen arloan, zer ezta Lafittek aratu, aztertu eta argitu? Gure aldizkari andiek noiz nai zuten Lafitteren izenpea zekarren lan funtsezkoen bat edo beste. Ez zitzaion iturria agortzen. Beti zeukan zerbait berri edo jakingarri esateko. Gazterik eman zigun *Euskaldunen Loretegia*, 1800 garren urtea arteko euskal-literaturaren bildumatxoa, gero, ainbat idazle zaar eta berriagoen bizitza eta lanak aztertu ditu: Oihenarte, Gazteluzar, Salbat Monho, Aita Bias, Anxuberro, eta abar.

Pensalari izan degu, eta beste pensalanei neurri artzen dakienetakoa. Platongandik asita oraintsuagoko filosofoen nondik-norakoa ezagutzen zuen. Gure artean, Mitxelena izkuntzalariren azterketa sakona egin du, bai oraingo gure idazleen pentsa-

bideena ere.

Alemanak Frantzian sartu ziranean, ixil eta mutu gelditu ziran Baionaldeko euskal-aldizkari eta erakundeak ere. Ola ixildu zan *Euskalduna* astekaria, Lafittek laster, egun obeak agertu zireneko, erakunde berririk eta *Herria* astekaria sortu, eta bere inguruan luma zorrotzak bilduko ditu.

Lafitterentzat euskera lantzea eta indartzea ez zan izan egiteko bakarra. Euskal-nortasun osoa gora jaso eta indartu nai zuen. Orretarako, programak eta ekintzak ere sortuko zituen. Orretarako, Sabino Aranak bultzatutako Pizkundera gogoko zitzaion.

Lerro auek ezer gutxi dira Lafitteri bera beteko aitormena egiteko. Geiago merezi zuen, noski. Utzi digun ikasbideari jarraitzea izango da omenaldirik onena. *Idek eta zabal* liburuko atal bat dakar *Karmel* aldizkari onek galdu degun langille andiaren omengarri.

*Lino Akesolo*